

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

### **- Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Guk gure produktua/zerbitzua banaketa kanal baten bitartez banatuko dugu bezeroen eskutara heldu dadin. Guk gure enpresan banaketa kanal propio bat egingo eta sortuko dugu, eta honi esker ez diogu beste banaketa enpresa bati ordaindu, guk geuk izango dugulako banaketa modu bat. Hortaz gain, gure produktua banatu baino lehen produktu honen informazio guztia eskainiko diegu bezeroei, eta banaketa kanala ez dugu oso garestia egingo bezero gehiago eduki ditzagun. Azkenik, behin gure zerbitzua bezeroen eskuetan dagoela, haietaz preokupatu egingo gara, eta noizean behin produktua zer moduz dabilen galdetuko diegu. Edozein arazo izanez gero haiengana joango gara eta ahalik eta esfortzu gehien egiten saiatuko gara.